

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**AIZARNAZABALGO UDALA**

*Ediktua*

Jakinarazten da Aizarnazabalgo udalerriko bake-epaile eta bake-epaile ordezeko karguak betetzeko espedienteari hasiera eman zaiola.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 99.etik 103.era birtarteko artikuluetan eta bake-epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorri, Udalaren osoko bilkurari dagokio bake-epailea eta haren ordezkoa hautatzea, legezko baldintzak betetzen dituzten eta hala eskatzen duten pertsonen artean.

Horretarako, 15 eguneko epea irekitzen da, ediktu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera, aipatutako lanpostu hutsa betetzeko interesa dutenek alkateari idatziz eska diezaizoten.

Espedientea udaletxean aztertu ahal izango da, eta bertan behar den informazioa ere jaso ahal izango da, lege-betekizunei, karguaren iraupenari eta abarri dagokienez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Udalak ordezeko bake-epailea aukeratuko du eskaera egin duten pertsonen artean. Eskatzailerik ez badago, osoko bilkurak askatasunez aukeratuko du, prozeduraren betekizun berak betez.

Jende guztiak jakin dezan argitaratzen da.

Aizarnazabal, 2021eko martxoaren 2a.—Mari Carmen Arregi Agirre, alkatea. (1575)

**AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL**

*Edicto*

Se hace saber que se ha dado inicio al expediente para cubrir los cargos de Juez de Paz y Juez de Paz Sustituto del municipio de Aizarnazabal.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 99 a 103 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y el Reglamento 3/1995 de 7 de junio de los jueces de Paz, corresponde al Pleno del Ayuntamiento la elección de Juez de Paz y de su sustituto, entre las personas que, reuniendo las condiciones legales, así lo soliciten.

Para ello se abre un plazo de 15 días contados desde la publicación de este edicto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa para que los interesados en cubrir la mencionada vacante, lo soliciten por escrito dirigido al Alcalde.

El expediente podrá ser examinado en el Ayuntamiento, donde se podrá también recabar información que se precise en cuanto a requisitos legales, duración del cargo, etc.

Finalizado el período de presentación de instancias, el Ayuntamiento elegirá el Juez de Paz sustituto entre las personas que lo hayan solicitado. Si no hubiera solicitantes, el Pleno elegirá libremente con sujeción a los mismos requisitos del procedimiento.

Lo que se publica para general conocimiento.

Aizarnazabal, a 2 de marzo de 2021.—La alcaldesa, Mari Carmen Arregi Agirre. (1575)